



## Aurpegiak

### Amaia Telleria

**Bilduma:** Erria txikota!  
**Generoa:** eleberria (12 urtetik gora)  
**Formatua:** 13,50 x 21,50 cm.  
**Orrialdeak:** 116  
**Koadernaketa:** paperezko azala

**Edizioa:** 2025/09/04

**ISBN:** 978-84-9868-913-6

**SALNEURRIA(BEZ gabe):** 12,02 €

**SALNEURRIA (BEZarekin):** 12,50 €

**BAZTERKETA, NERABEAK, PRESIO ESTETIKOAK**

**ERRIA TXIKOTA!**



**Aurpegi asko ezkutatzen dira irudi perfektuen atzean. Zein da zurea?**




## Sinopsia

Lili eta bere familia Izkiberrira joan dira bizitzera, Gasteiztik gertu dagoen herri txiki batera. Gazteak aurre egin beharko dio bere bizitza ingurune ezezagun batean berreraikitzeke erronkari. Institutu berrira egokitzen eta lagun berriak egiten saiatzen da, baina hango biztanleen perfekzio fisikoak zur eta lur uzten du. Lilik berehala ezagutuko du itxura ideal horren atzean dagoen sekretua; *appegia*, erabiltzaileei aurpegia eta gorputza iragazkien bidez aldatzeko aukera ematen dieten betaurrekoak.

Irudi berri baten desirak erakarrita, Lili betaurrekoen munduan murgilduko da, hala bere segurtasunik ezak uxatuko dituelakoan. Nolanahi re, laster konturatuko da benetako borroka ez dagoela itxuran, baizik eta gizarteak ezarritako presio estetikoetan. Lilik bere benetako nortasuna onartzen ikasiko du Izkiberrin, bai eta maitasuna ezagutuko ere. Perfekzioarekin obsesionatuta dagoen mundu batean benetakotasuna bilatzeari buruzko istorio bat idatzi du Amaia Telleria Mujikak.

« No-make up eran makillatu naiz: itxura ona eta osasuntsua izan nahi dut, baina gehiegi pasatu gabe, betiere. Gero appegia probatu ditut. Arin-arinak dira, titaniozkoak, baina nire burua arraro ikusten dut horiekin. Kendu eta motxilan gorde ditut. Agian geroago... Bizkor jantzi naiz. Instagramek eta ispiluak irentsi dituzte dagoeneko egunaren lehen minutuak, aseezin. Ez daukat ia gosaltzeko denborarik. Berdin dio, ordu hauetan ez baitzait ezertxo ere sartzen. Tomatez igurtzitako ogi zatia hartu eta motxila bizkarrean dudala atera naiz etxetik, gurasoei agur esan ostean. Ama ganoraz gosaltzeko denbora hartzeaz ari zen marmarrean.»

## Egileaz



**AMAIA TELLERIA MUJIK** Idiazabal, 1993. Ekimen eta etorri handiko umea izan zen. Asmo eta ametsak zituen. Beldurrik gabe zikintzen zen jolasteko, ez zitzaion axola ilea nahasita izatea. Ispiluak aurpegi arraroak jarri edo urez zipriztintzeko erabiltzen zituen. Nerabezaroak irentsi zuen gero, eta bat-batean sagarrari kosk egin izan balio bezala agertu zitzaizkion lotsak, kezak, gizartearen presioak. Zartatu egin zen bere umetako ziurtasuna. Ordutik ziurtasun horren piezak berriz itsatsi nahian dabil. Batzuetan lortzen du, beste batzuetan nola egiten den ahanzten zaio.

### EGILE BERARENAK:

